



SOPELAKO II. ARGAZKI RALLYA

NOIZ: Noiz: 2020/09/19

NON: Sopelako Udaletxea.

ORDUTEGIA: Argazki kontrola 8:30 -10:00 / Aurkezpena 13:00h-14:30h

ZER DA ARGAZKI RALLYE BAT?

Argazki rally-a, argazkigintzaz gozatzeko ekintza bat da, zeinetan parte hartzaile bakoitzari gai jakin bate maten zaion (parte hartzaile guztiei berdina) eta denbora zehatz batean gai hoiei buruzko argazkiak egin beharko ditu. Rally-a bukatzean antolakuntzako ardura-dunei aurkeztuko zaizkio argazkiak. Argazkiak epaimahai batek aztertuko ditu eta emandako puntuazioaren arabera egingo da sailkapena.

AURKEZPENA

Rally-a 2020ko irailaren 19an egingo da, Sopela Kosta Fest jaialdiaren inguruan (www.sopelakostafest.com).

IZEN-EMATEAK

Izen-eman tea doakoa izango da eta Sopela Kosta Fest-aren webgunean (www.sopelakostafest.com) egin ahal izango da, irailaren 19ra arte. Adinez nagusia den eta oinarriak onartzen dituen edozein pertsonak hartu ahal izango du parte.

Adinez txikiak diren pertsonak izena-eman nahi izanez gero aukera izango dute, beti ere nagusi batez lagundurik bada (bizikidea) eta izen-ematea azken honen izenean eginez gero. Adinez txikikoek (18 urte baino gutxiago) ez dute saririk jasoko dirutan.

RALLY-aren GARAPENA

Rally-aren egunean, irailaren 19-a larunbata, parte hartzaile bakoitzak formateatutako memoria txartela ekarri beharko du eta bere kamera ordu eta egun zehatzarekin.

Izena emandakoek Udaletxeko Hall-ean aurkeztu beharko dute bere burua, goizeko 08:30etatik 10:00etara bitartean parte hartzea konfirmatzeko, rally-aren 5 gaiak jasotzeko eta kontrol argazkia egiteko. Jarraian rally-a hasi ahal izango du(te).

Argazkien aurkezpena eguerdiko 13:00etatik 14:30etara izango da Udaletxeko Hallean, eta memoria txartelean 5 argazki baino ez dira egongo, gai bakoitzari buruzko bat (gaiak izen ematean banatuko dira). Argazkiak JPG formatuan egongo dira, ez da argazkia atera ondorengo ediziorik egiteko aukerarik egongo (ezta kameran bertan egindakoa ere). Argazkia egin aurreko ezarpenak egitea baimentzen da (zuri beltza barne).



Argazkietan ezinezko izango da adinez txikiko pertsonak agertzea.

Udaletxeko Hall-era banan bana sartzeko aukera baino ez da egongo. Parte hartzaile bat baino gehiago era berean sartu nahi izanez gero, egoitzaren kanpokaldean itxaron beharko dute, 1,5 metrotako tartea mantenduz. Derrigorrezkoa izango da musukoa eta sartu aurretik gel hidroalkoholikoa erabiltzea.

EBAZPENA

Epai mahaia Uribe Kosta Fotografia elkarteak aukleratutako 3 argazkilariz osatua egongo da, eta ebazpena apelaezina izango da. Epaimahaiak ez du inolaz ere irudien egilearen daturik ezagutuko.

SARIAK

- Lehen saria: 165 €.
- Bigarren saria: 100 €.
- Hirugarren saria: 75 €.
- Bertoko saria: 165 €.

Parte hartzaile berak ezin izango du sari bat baino gehiago eskuratu. Bertoko argazkilaririk onena sailkapen nagusiko lehen hiru postuetan egongo balitz, sarietako bat aukeratu beharko luke.

Adinez txikiko parte hartzaile onenari: Diploma.

Sari banaketa datorren iralaren 20an (igandea) izango da, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko plazan.

LANAK ETA ERAKUSKETA

Saritutako argazkiekin erakusketa bat egiteko aukera egongo da Kurtzio Kultur Etxean, 2020ko udazken-eguan zehar. Argazkien jabetza egilearen izango da, baina Udalak erabilera egiteko aukera izango du beti ere egilearen datuak aipatuz gero eta beti ere Rallyaren edota Sopela Kosta Festarekin zerikusia duten gaiak zabaltzeko bada. Argazkien formatu fisikoaren jabetza Sopolako Udalarena izango da.

Lehiaketan parte hartzeak, oinarriak onartzea suposatzen du. Oinarrien onarpenarekin bat, erabiltzaileak onartu eta bermatzen du adinez nagusia dela, bere datuak benetazkoak eta egiaztagarriak direla eta Argazki Rallyan aurkeztutako irudien jabea dela.

INFORMAZIO GEHIAGO: uribekostafotografia@gmail.com - 685731275